

ToShare Behatokiaren 1., 3., 4. eta 5. lan-ildoen bileraren laburpena: "Giza Eskubideak eta Nazio Batuen Garapen Jasangarriaren Helburuak betetzearen aberastasuna banatzearen ondoriozko eskakizunak", "4.0 industriak eta teknologia berriek sortutako aberastasuna identifikatzea", "Aberastasunaren banaketa ezagutzea" eta "aberasutasuna zuzen banatzeko zerga-sistema progresiboak bilatzea".

Asteartean, urriaren 22an, 15: 00etatik 15: 45era, EHUko Lan Harremanen eta Gizarte Langintza Fakultateko Dekanatoan (3. solairuan) eta skype bidez.

Bertaratuak: Noemi Peña (EHU), Luis Belaustegui (EHU), Rosario Goñi (Mugarik gabeko Ekonomistak), Manolo Bayona (Baladre Elkartea) eta Angel Elias (EHU). Espresuki barkamena eskatu dute Isa Alvarezek (Baladre Elkartea), Zuriñe Romeok (EDE Fundazioa), Xabier Zabalak (ELA Sindikatua) eta Sofia Mararroquinek (Oxfam-Intermon), bidalitako doodlean egun horretan joaterik ez zutela erakutsi zuten beste pertsona batzuekin batera.

Bileran, bidalitako gai-zerrendako puntuei heldu aurretik, Ángel Eliasek azaldu du zer zailtasun egon diren, erantzunak Doodle-n jaso ondoren, data eta ordu bat aurkitzeko; beraz, bertaratutako kopuru nahikoa lortze aldera, 1., 3., 4. eta 5. gaiak elkartzearabaki da.

Jarraian, gai-zerrendan ezarritako gaiak landu dituzte:

- 1) 2019ko martxoaren amaieran egindako aurreko bileretatik Behatokian eman diren urratsei buruzko informazioa: parte hartzen duten 24 erakundeekin harremanetan jartzea, webgunea eguneratuta izatea euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez, non dokumentu asko sartu diren 6 lan-ildoetan, eta hainbat ekitaldi zabaltzea. Era berean, buletinaren 4 zenbaki argitaratu dira.**
- 2) Hurrengo hilabeteetan, dokumentuak eta argitalpenak partekatzen jarraitzea komentatzen da, bai eta sare sozialetan eztabaida sortzea ere, talde tematiko bakoitzak ekimenak aurkeztera animatzeko. Ados dago Behatokiak pertsona eta erakunde desberdinen ekarpenak islatu behar dituela, eta horiei paper aktiboagoa hartzera animatzen zaie.**